

JULIAN ALUSTIZA

Lihoaren penak eta nekeak

JAKIN. Arantzazu, Oñati. 1981. 225 or

Ulgaitza gerta ohi zaigu askotan, hain aspaldi ez den denbora batez gure aita-amek baserrietan zeramaten bizi gogorra. Eguneroko jan-edanak eta jantziak sortzen zieten istilu gorria. “Pasabidea” eskatzen zion amatxi zaharrak goizetik Jainkoari, eta egun berriaren argia, oheratze bakoitzean. Pobre bizi eta pobreago hil, ez digute utzi nahigabe horien adierazpenik ere.

Julian Alustizak lihagintzari buruz egin duen lana Euskal Herriko baserritarren atal oso bereziaren historia da. Herriz-herri misiolari eta urte buruan festa nagusitako predikari ibili behar izatean, beti aurkitu ohi zuen baserritarrekin hitzaspertu bat egiteko tartetxoa. Euskararen maisurik jatorrenak baserrietan aurkitu dituela, aditzera ematen du, neuk ere behin eta berriz esan ohi dudan bezalaxe. Lehen eskuko bilketa baten aurrean gaudela, esan nahi du horrek. Ordu arteko bildumak baztertu gabe, noski, eta beraien edukia ongi baliatuz; baina bere ekarkin berria oinarritzat harturik. Hor dazta lehen balioa. Bilketalan aberatsa egin du frantziskotarrak.

Herri-jakintza, bizi duenak bere kolkorako duen jakinduria denez, gizonak berekin darama beste mundura, norbait ahalegintzen ez bada ezpainetatik jaso eta iraunkorrago diren zirriborroetara aldatzen. Lekukotasun horren bidetik, izen gabekoen gau beltzean galduko ziren hainbat euskaldun zahar ekarri ditu liburu honek aipagarrien egun argira. Gure lihagin, irule, ardazketari eta azken ehuleen zerrendak ikusi besterik ez dago, langintza honen oinarri sendoa ezarri duela esateko.

Lihagintzaren mundua oso mugatua da eta herri bateko monografi lana egin beharrean, Hego Euskal Herriko agerpen zabala egiten ahalegindu da liburuaren egilea. Hotz-hotzean ekintzari zegozkion berriak emate hutsa izan zitekeen beste muga bat, “horno faber” delakoaren azalpena, alegia, eta bertan jasotako xehetasunekin lanak ona izaten jarraituko zuen, berri emailen izenekin batera, horretarako zituzten tramankulu eta lanabesen berri ematen bait da.

Alustizak, halare, lihagintzaren haritik ardatza astintzen zuen gizonaren eskua aurkitu du bidean, honen buru bihotzetan jarriak zituelarik begiak. Behatz korapilotsuen begirada azalekoan geldi zitekeen miruaren zeru sapaiaiko hegalkada dotorez mundua loratsu ikusiz; baina, atarikoan berak dionez, “pago-uso gosetia ezkurrera bezala, ni ere, ohartzeke, gure zaharren mintzaerari lotu era zaletzen nindoan gogotik”.

Hitz gutxitan esateko, euskaldunen une bateko bizimodu, kezka eta sentipenak ere agertzen ditu egileak hhagintzaren ate medarretik sudurrak oso barnera sartuz.

Lihagintza

Lihoa garrantzi haundiko laborea zen Euskal Herrian. Gari eta artoaren antzera bere baliapenaren esamesak baditu folklorean. Uharte Arakilen, adibidez, liho-latza bakarrik lantzen zuten, eskuen penagarri. Handik gertu, Aralar mendian Madotz aldera zegoen Agiri izeneko herrian bazuten, bestalde, liho-beratxa, eta Uhartearrek ordezkarri batzu bialdu ornen zituzten Agirira, liho-beretxa noiz ereiten zen galdetzera.

Mendikoek ez zeukaten, nunbait, beren jakintza inorentzat salgai, eta aho bete hortzekin utzi zituzten mandatariak, ezezkoa emanez.

Lotsa gorrian gizonak, atalburu ondoan gelditu izan behar zuten esku hutsean herrira itzultzeko nahigabez eta barnekoen algara entzun zuten, noski, delako koplak hau Agirin edozein umek bazekiela esanez:

*“Elorria hosta-giro,
liho beratxa erein-giro;
elorria lora-giro,
maiza erein-giro.”*

—Trebe gaituk! —esan ornen zioten elkarri, eta pozik itzuli herrira.

Orixe zenaren bertsoak errepikatuz bultzatzen du egileak bere lana: *Sabela betetzeak duela izerdi?/Larrua estaltzeak zer duen nork daki?* Lihoaren lana arreta haundiaz egitekoa zen, luze eta neketsu izateaz bestalde. Etxarri Aranazko emakume batek esan zionez, lurra prestatzea bera ez zen nola-nahi egin behar: “Konfesio on bat bezela paratu behar zen dena.”

Alustizak ongi ikasi du lihagintzako lanbidea eta, konfesio on bat egiteko eran ez bada ere, konzientziak jaso ditu berriak eta bai eman ere. Piruzpiru landu du haria eta gaien mataza bildu ehunaren sare estua liburuan hedatu arte.

Lihazia ereiten denetik ehulek bere lana egindakoraino emandako xehe-tasunak oso baliagarriak iduritzen zaizkit, inoiz langintza hori ezagutu ez dutenek ere ulertu ahal izango dutelako. Eta hori da bilketa jator baten lehen helburua. Urrats bakoitzaren zergatiaz liburu baten bidez ongi jabetzerik ez dago, egilea bera ez bada horretan ikasia eta adierazteko trebea. Piru bakoitzak bere korapiloa du, orratzaren puntadarik ez galtzeko.

Eragozpentxo bat ikusten diot bakarrik: aipu dituen lanabes eta trama-kuluen iruditxo edo marrazkiren baten falta. Ez dut noski egindakoaren

akats bezala esaten, alderantziz baizik. Lanak duen garrantziagatik gehigarri hori merezi luke.

Eta esandakoaren ondorioz, dakarren hiztegia azpimarra nezake. Zenbat hitz mota ez du herriak sortu gauza berdina adierazteko! Ez noa adibiderik ematera, baina aberastasun haundia da, berez, eta hiztegi orokorrean denak jaso beharra, lihagintzara inoiz itzultzerik ez egon arren. Horietako batzu, beste esannahiren batekin erabili izan dira. Guardiek norbaiti hautsi arte eman ziotela adierazteko, *ligotu zute(n)*, entzun nuen Mezkitritzen. Eta bada halako frango. *Lihoari haina eman*, esaten zen nere etxean.

Hiztegi honek ikerketa mailan biharko egunean argibide asko eman dit-zake hizkuntzalariei, ekintza oso zaharra eta herrian oso zabaldurik egona baita.

Hamabost orrialdeko hiztegia dakar liburuak azken orrietan ikerleen lagungarri.

Lihagintza, bestalde, gizarteak emakumeari leporatutako zama astun ezin-baztertua izan da gure artean. Oso gazterik abiatzen zen neskatilla “emakumearen izen onak” nahi-ta-ezpadakoa zuen langintza honetan, bere ezkontzarako arrijea prestatu bekar zuelako leloarekin. Ardazketan ez zekien emakumea oso gaizki ikusia zen euskaldunen artean eta apaltasun hundia zen beretzat.

Adierazpen eta aitortza guziek baino gehiago erakusten duen kondakizun bat jaso nuen Urdiainen. Ba omen zen herrian ardazketan ez zekien kanpotik etorritako emakumeren bat. Auzoko emakume guziek aurpegiara egiten izan behar zioten barre. Ba omen zen baita ere herrian sorgin hotsa zuen emakume zaharren bat eta, besterik ezean, harengana jo omen zuen kanpotikakoak haria egiten ikastera.

Ardazketarien bilera nun zen jakinik, berehorrekin joan omen zen sorgina auzko lagunengana. Intzaur batzu sartuak zituen horretarako atorraren mahuka zabaletan. Ardatza eskuan hartu orduko, *kriskiti kraskata* hasi omen zitzaion, sekulako hotsekin, intzaurren dantza.

Harriturik zeuden, nunbait, besteak hots hura zer zen galdezka.

—Nere hezur zaharren doinua da, esan zien berak. Lanbide gaizto hau dela bide iritsi dira horretara, horbela bezala kraskatzen baitira! Zorionekoa lanbide honetatik libro dena.

Hantxe bertan amaitu omen ziren batzartuen barre eta esan beharrak,

Eta lana-lan, lihagintzak sortu zuen gizartearekiko erantzunkizuna eta, horren ondorez, emaztearen menpekotasuna, ongi baino hobeki jasorik dau-de lehen orritik azkenerarte. Langintzaren xehetasunekin batera herri giroaz ere jabetzean, lihagintza hutsaren mugak gainditu eta lekukotasun historiko zabalago batera hurbiltzen den antropologi lanaren balioa hartzen du.

Jantzia

Edukiaz bestalde, liburu batek badu egilearen nortasuna adierazten duen bere tankera. Zilegi bezait jantzi literarioaz lihoaren liburuari ohar batzu egitea, Egilcaren berezko olerkari sena nabarmentzen da lehen begiradan; astiro eta atseginez egindako lanaren emaitza da. Baina olerkariaren argidu-

ra ez da ikerlana bere haritik baztertzeko aitzaki bat, bere horretan sendoago oinarritzeko begirada baizik. Sukalde txokoan kriseilu ikaztatuaren gar eta kedarrez giroa hobeki oratzeko lagungarri.

Gaien lotura esku latzen zarpiltasunetik jalgi beharrean —lanen sailkapen hotzetik, alegia—, gogo bihotzetan sortu ohi zuen eraginaren pena eta nekeetatik atera du. Liburuaren izenak berak agertzen duenez, lihagintzako borrokan eragile den gizona bera zuen, batez ere, begien aurrean. Ekintza horren hamahiru ekitaldi nagusi helburutzat harturik mamitzen dira beste horrenbeste atalen eduki poetikoak. Eta hari horren gidari Orixe zenaren bertso herrikoiak. Horrela, lan gogorraren mailukada bakoitzak badu txukun esandakoaren gatz eta piperra; tramankuluen eskutokian sumatzen da biziaren beroa. Pena eta nekea bera biziduen sentipenak dira.

Lihoaren nahigabe horiei dagokien ondorio ederraren aintza aipatzea du eskas, behar bada, liburuak. Aste Santu guzien ondorengo Pazkoaldia. Izan ere, lihoaren emaitza aberatsa den harizko oihala ohore haundiz ibilia da munduan zehar. Haundizkien fantesia eta aldare oihalen gaitasuna adierazten zuen. Harizko *troxa* ezarri ohi zitzaion jaioberriari zilaren inguruan, eta harizko izaraz estaltzen zen ohea norbaiti azken sakramentuak ematera koan. Bitartean, Gorputz Kristi eguneko elizkizunetan ehunezko pieza luzeak banatzen ziren kalez-kale Sakramentu Santuari bidea prestatzeko.

Nik ezatik goiko zeruan harizko oihalen beharrik izango den; baina Nafarroako Dorrau herrian entzun nuenez, ekaitzetan jostai, hostots eta trumoi zalapartak hasten direlarik “zeruan aingeruak garban”, aritzen omen dira.

Julian Alustizaren lanak izan du, amaitzeko, gurutzebide guzien pazoaldia berak ere, 1975 *San Isidro* lehiaketan bigarren saria eman baitzioten, lehenik, eta bi urte geroago 2977 *Andima Ibinagabeitia* lehen saria.

Edozein irakurlek neke haundirik gabe irakur dezake, ohitura duen batek harrapaldi batez eskutik utzi gabe, eta herri-jakintzan ikasiek behin eta berriz eskura beharko dute.

José M. Satrustegui